

ASTELEHENEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2017ko EKAINAREN 19a. 08:30.

ASTELEHENA (2017/06/19)

Zerua hodei gutxirekin edo oskarbi egongo da. Arratsalde-gauean bero-hodeiak sortuko dira eta zaparrada txiki-ertainak eta trumoitsuak bota ditzake, bereziki barnealdean. Txingorra egin dezake. Ekaitz-guneetan haize-bolada gogorak edo oso gogorak izan daitezke. Hego-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin eta oso gogor batzuekin mendi inguruetan. Arratsaldean haizeak indarra galduko du eta kostaldean ipar-mendebaldera egingo du. Temperatura maximoak nabarmen edo asko igoko dira kantauri isurialdean, bereziki kostaldean. Gainerako tokietan berdin jarraituko dute edo gutxi igoko dira.

Temperaturak (°C)	
	<i>Maximoa</i>
Donostia	35
Bilbao	35
Gasteiz	35
Arrasate	37

ASTEARTEA (2017/06/20)

Zerua hodei gutxirekin egongo da, tarteka hodeitsu, bereziki goizean eta egun amaieran. Goizaldean eta arratsalde-gauean zaparrada txiki-ertainak eta trumoitsuak bota ditzake. Txingorra egin dezake. Ekaitz-guneetan haize-bolada gogorak edo oso gogorak izan daitezke. Hego-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da egunaren lehen partean, bolada gogor batzuekin mendi inguruetan. Arratsaldean haizeak iparraldera egingo du eta ahula izango da. Temperatura minimoetan aldaketarik ez.. Temperatura maximoak gutxi jaitsiko dira.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	21	32
Bilbao	21	33
Gasteiz	18	33
Arrasate	19	34

ASTEAZKENA (2017/06/21)

Zerua hodei gutxirekin edo oskarbi egongo da, goi-hodei batzuekin. Arratsalde-gauean bero-hodeiak sortuko dira. Hegoaldeko edo hego-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da egunaren lehen partean; arratsaldean kostaldean brisa. Temperaturan aldaketarik ez edo gutxi igoko da.

OSTEGUNA (2017/06/22)

Zerua hodei gutxirekin egongo da, goi-hodeien tarte hodeitsuekin. Gauean behe-hodeiak ugarituko dira kantauri isurialdean. Norabide aldakorreko haize ahula ibiliko da. Goizean kostaldean ipar-mendebaldeko haizea nagusituko da, tarteka bizia izango da; gainerako tokietan arratsaldean eta gauean egingo du haizeak ipar-mendebaldera. Temperatura minimoetan aldaketarik ez. Temperatura maximoak nahikoa edo nabarmen jaitsiko dira kostaldean; gainerako tokietan aldaketarik ez edo gutxi jaitsiko dira.